

# Prest!



BERBETAN: **ITSASO LARRAMENDI** HIRIGINTZA GENERO IKUSPEGITIK

ERREPORTAJEA: **UOLDEAK DEUSTUKO ERRIBERAN** BARKUA: **HIRIGUNEKO ZUHAITZAK: ARNASGUNE EDO OZTOPO**

4-245-246-247-248



## Sustatzailea



## Babesleak



## Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu  
**Prest!**

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com  
94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

# aurkibidea

	Jaione Ayestaran - Ibai Etxautz   	<b>Iritzia</b>	4
	Lorea Rivera 	<b>Gureak kanpoan</b>	5
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> Amesgaizto baten urteurrena  <i>Aurtengo abuztuan 40 urte beteko dira Euskal Herriak, eta Bizkaiak bereziki, iragan hurbileko uholderik latzenetarikoak bizi zituela. Horrexegatik, efemeride horren bezperan, 1983ko gertaera horiek Deustualdean izan zituzten eraginak ekarri nahi izan ditugu gogora.</i>		6
	Jai Batzordeak musikaz eta hainbat ekintzaz jantzi du Sani 	<b>Jaiak</b>	10
	Capitán Segarra baporearen nabigazio gorabeheratsua 	<b>Behin batean</b>	12
	Jai ereduia jomugan 	<b>Artikulua</b>	14
<b>b</b>	<b>berbetan</b> ITSASO LARRAMENDIrekin  <i>Deustuarra, Arkitekturan tituluduna eta Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko masterra ikasitakoa. Itsasok bere lana jorratzeko pertsonen eguneroko bizitza jartzen du erdigunean. Hots, arkitektura parte-hartzai- learen defendatzaile sutsua. Hala, Tipi kooperatibak funtsezko elementutzat hartu du bere proiektua abian jartzeko.</i>		16
	La Riberako langileek egindako eskultura (1930) 	<b>Irudiak berbetan</b>	21
	<b>EUSKAL MUSIKA</b> Euskal musika, egungo gizartearen isla	 <b>barkua bete herba</b>	24
	<b>HIRIGINTZA</b> Hiriguneko zuhaitzak: arnagune edo oztopo		
	<b>PINTXODROMOA</b> Karrillera takoak boniato eta piparrekin		
	<b>KULTUR TXOTX</b> Danel Abando Olabarri eta Enare Muniategi		

# Prest!

**Argitaratzailea:**

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Nerea Cubillo Urkizu

**Erredakzioa:** Asier Cobos, Axular Arostegi, Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errendoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

**Argazkiak:** Ecuador Etxea

**Publizitatea:** Nerea Cubillo Urkizu

**Diseinua:** BOST

**Maketazioa:** Laura Freijo Iglesia

**Inprimategia:** Antza

**Ale kopurua:** 2.800





**Jaione Ayestaran**  
Kazetaria



*(Ama)iera*

Opari bat balitz bezala jaso nuen txoko honetan idazteko eskaintza. Ikasturteko beste oparia urtarrilaren 24an jaio zen. Orduetik, asko izan dira jasotako aholkuak. Eskatutakoak zein eskatu gabeak. Denek dute zer esan; iruzkin bat; teoria bat; bizipen bat, esperientzia. Denek dute zer kritikatu. Batez ere, zer kritikatu.

Ez noa amatasunaz idaztera. Asko idatzi da horri buruz eta ez daukat nik horretarako adorerik. Baina azken aletxo hau baliatu nahiko nuke askatasun aldarri bat egiteko. Ama izateko bidean daudenak, badirenak, laugarren umearen zain daudenak edo lehenengoarekin ezinean dabiltzanak, bularra eman nahi eta ezin dutenak, uko egin diotenak... Izan zaitezte euren bidelagun, errespetuz eta baimenarekin. Baina batez ere, utzi bakean.

Laguntza presio bilakatzen denean ez baita laguntza. Eta bakardadera kondenatzen gaitu, noiz eta 24 orduz alboan zure beharra duen pertsona bat duzun bizitzako une horretan.

Amatasuna nork bere moduan bizitzeko aukera aldarrikatuz bukatuko dut nire ekarpena *Prest!*en. Eta azkena izango den honetan, ezin ahaztu hilerio hilerio lerro hauek irakurtzeko tartea atera duzuen guztiak. Doakizuela hemendik nire eskerrik beroena. Besterik ezin dizuet eman eta.

Ni gehixeago ezagutzeko aukera izan duzue, akaso. Irailetik aurrera, nik ere beste alde horretara egingo dut salto, eta gustora irakurriko ditut orri hau beteko duten iritzi-emaila berrien hitzak.



**Ibai Etxautz**  
Sanikoa



## *Umeak salgai*

Bilbon, hil honetan, Haurdunaldi Subrogatuaren inguruko Lehen Nazioarteko Kongresua egingo da. Bertan, hainbat herrialdeetako enpresa eta familia batuko dira emakumeen erreproduzitzeko gaitasunaren merkantilizazioa bultzatzeko asmoz. Ezin uka praktika hori gero eta hedatuago dagoela, baita ustezko mugimendu aurrerakoietan ere, eta kezkatu egiten nau batzuek ez ote duten iparra galdu. Izan ere, alokairu sabelen bultzatzaileak diskurtso askatzaileen pregoilari eta erreferente bihurtzen ari dira.

Praktika honen babesleek eskubide indibidualetan eta erabakitze askatasunean oinarritzen dute beraien diskurtsoa. Hau da, gizabanakoak hala adierazten badu, askea da beste pertsona batena izango den seme-alaba bere sabelean hazteko. Askatasuna borondate huts eta baldintzarik gabea bezala ulertzeak, ordea, gizarteko zapalkuntzak ukatzea eta

desitxuratzeari dakar. Borondatez eta askatasunez jarduten al du bizirauteko eta haren familia mantentzeko bere sabela alokairuan jartzen duenak?

Norbanako txiroak esplotatzea ekiditeko dohaineko alokairu sabelak edo "altruistak" legeztatzea proposatzen dute batzuek. Erresuma Batuko eta Portugaleko esperientziek, aldiz, ondorio argiak utzi dituzte. Altruismoa ez da nahikoa umea izan nahi dutenen eskaria berdintzeko, ez baitago umetokia laga nahi duen norbanako askorik. Gainera, hainbatek, ordainduz kanpora jotzen dute baldintza hobekak lortze aldera: edozein momentutan haurdunaldia gelditzea, fetuak ezgaitasunik badu atzera egitea, etab. Okerrena, berriz, seme-alabak izateko desira hutsa eskubide bihurtzeko saiakera da. Baina, ez al da emakumeen zapalkuntza betikotzeko beste modu bat?





## Lorea Rivera

**Jatorria:** San Inazio  
**Bizitokia:** Utsunomiya, Japonia  
**Lanbidea:** Ikerlaria



### Noiz iritsi zinen Japoniara?

2022ko irailean heldu nintzen, Tokiotik iparraldera dagoen hiri batean bizitzera.

### Zerk eraman zintuen Euskal Herritik ateratzera?

Doktorego tesia amaitu ostean, argi neukan ikerketa munduan jarraitu nahi nuela. Zoritxarrez, ikerlariontzat lan-aukera gutxi dago Euskal Herrian. Beraz, denboraldi batez atzerrian lan egitea erabaki nuen eta Japonian sortu zitzaidan aukera.

### Zer izan da orain arte gehien arritu zaituena?

Bizimodua guztiz desberdina da hemen; beraz, gauza asko harritu naute. Adibidez, denda eta jatetxe asko 24 orduz daude zabalik, japoniarrek orokorrean denbora asko ematen dutelako lanean. Azken honengatik, askotan garraio publikoan edo lantokian bertan lokartzen dira, eta horrek hasieran asko harritzen du. Bestalde, aisialdia oso desberdina da Euskal Herriarekin alderatuta. Gazteak normalean karaokera doaz, edo merkataritza gunera bideojokoetan jolastera. Leku horiek esploratzea esperientzia interesgarri eta dibertigarria izan da. Manga eta animea ere nahiko ezezagunak

ziren niretzat, eta deigarria egin zait Japoniako gizartean duten garrantzia, bai ekonomikoki eta baita japoniarren eguneroko bizitzan ere.

Orain arte gehien gustatu zaidana 'sakura' edo gereziendoen loraldia izan da. Japonian natura asko zaintzen dute eta ikaragarri politak daude parke eta mendiak garai hartan. Bi aste baino ez dirau eta horrek oso berezia bihurtzen du.

### Tarterik izan duzu japoniera ikasteko?

Momentuz hitz eta esaldi sinpleak ikasi ditut, eta ikasitakoa egunerokotasunean erabiltzen saiatzen naiz. Idazten eta irakurtzen ordea ez dut ikasi, hiru idazkera mota daude eta oso zaila egiten zait.

### Zeintzuk dira bi herrialdeen artean somatu dituzun antzekotasunak? Eta diferentziak?

Euskal Herrian bezala, Japonian ere oso paisaia natural ikusgarriak daude, eta mendiak asko dago. Somatu dudak diferentziarik handienetarikoa komunikatzeko era dela esango nuke. Euskal Herrian oso zuzenak gara hitz egiterakoan eta hori Japonian ez dago ondo

ikusita. Hala ere, oso ulerrak dira beste testuinguru batzuetatik gatozenekin eta harrera ona egin didate. Laster ohitu naiz erreberentzien bidez agurtzera eta behin eta berriz eskerrak ematera.

### la urtebete daramazu Japonian bizitzen. Zer gomendatuko zenioke bertara bidaiatzea erabakitzen duenari?

Bala trenarekin oso eroso da herrialdean zehar mugitzea; beraz, hiri handiez gain herri txikiagoak ere bisitatzea gomendatuko nuke. Hauetan gauza gutxi egoten dira ingelesera itzultita, beraz itzultzailea eskura izatea ezinbestekoa da.

### Nola daramazu familia eta lagunak horren urrutiko egotea?

Gogorra da, noski. Bideodeien bidez mantentzen dut kontaktua, baina ez da berdina. Hala ere, lagun dezente etorri zaizkit bisitan eta horrek asko laguntzen du etxetik gertu sentitzen.

### Zer da faltan gehien botatzen duzuna?

Familia eta lagunekin planak egitea. Uda partean, mendi irteeren eta auzoetako jaien falta nabari dut bereziki.



Tresnak Zeramika Tallerraren garbiketa lanetan.

## AMESGAIZTO BATEN URTEURRENA

*Aurtengo abuztuan 40 urte beteko dira Euskal Herriak, eta Bizkaiak bereziki, iragan hurbileko uholderik latzenetarikoak bizi zituela. Horrexegatik, efemeride horren bezperan, 1983ko gertaera horiek Deustualdean izan zituzten eraginak ekarri nahi izan ditugu gogora.*

**Testua:** Axular Arostegi

**Argazkiak:** Txema Luzuriaga eta Nerea Olaziregi

1983ko abuztuaren 26an Euskal Herria urak hartu zuen. 43 pertsonak bizia galdu zuten ez-behar horren ondorioz. Bata bestearen atzetik iritsitako 3 ekaitzek 1.500 tona ur bota zituzten. Egun hartan soilik, Bilboaldean batez beste urte oso batean izaten den euri kopurua bota zuen. Galera ekonomikoak 3.000 milioi euro baino gehiagokoak izatera iritsi ziren.

Hala, gure herrian bertan amesgaizto haren bizipenak iltzatuta diraute zenbait deustuarren memorian. Bilboko itsasadarra parean izanda, egun horretan urek bizitako gorakadek eragin lazgarria izan zuten Deustualdean, Deustuko Erriberan bereziki. Harrezkero 40 urte pasa diren arren, gertatutakoak ez dira ahaztu. Zentzu horretan, Yolanda Veiga, Iban Méndez eta Nerea Olaziregi, auzoko bizilagun eta kazeta-

riek "Hamaika Begirada" liburu-dokumentala aurkeztu zuten joan den urteko ekainean. Bertan, Deustuko Erriberako eta Zorrotzaurreko ehun urteko historia eta bizipenak bildu zituzten, besteak beste 1983ko uholdeen gaia jorratuz eta tragedia bizi izan zutenen testigantzak jasoz.

### Oroitzapen ahaztezina

Maritxu Agirre Burgoak ez du data hura ahaztu. "Abuztuaren 26a. Bilboko jaiak ziren. Lagunak nituen etxean eta Bilbora joateko prestatzen ari ginen. Jendea deitzen hasi zen. Euria txoznak eramaten hasi zela esan ziguten". 16 urte zituen eta Deustuko Erriberako 20an bizi zen. Gogoratzen du 1. pisukoak balkoian eserita zeudela eta hankekin ura ikutzen zutela. Ibarrekolandan zeuden lagun batzuk kezkatuta beraien bila joan





Lutxanako zubia uholdeen ostean.

ziren baina ezin izan ziren heldu Erriberako sarrera guztiak itxita zeudelako. Olabeagaraino heltzea lortu zuten eta Maritxuk gogoratzen du handik linternekin komunikatzea lortu zutela. Ordurako argi eta telefonorik gabe zeuden. Oraindik oilo-ipurdia jartzen zaio bizitakoa gogoratzen duenean. “Consulado izeneko itsasontzia itsasadarrean gurutzatuta zegoela entzun genuen eta etxe aurretik denetarik pasatzen ikusi genuen: enborrak, kotxeak...”.

Ez du oraindik ahaztu gas bonbonen zarata. “Aitak balkoia itxeko esaten zigun. Horrek urak baino beldur handiagoa ematen zion.

Erriberan ura atari eta dendetaraino heldu zen baina eskerrak ez zela etxeetaraino sartu”. “Guda bat balitz bezala bizi izan zuen, ur guda bat”. Eta hurrengo egunetan guda ostea. Hunkituta gogoratzen du euriteak eta gero jasotako elkartasuna eta laguntza. “Jende asko etorri zen hona lanera. Ejerzitoko kamioi batek janaria ekarri zigun eta txandak antolatzen genituen janaria banatzeko. Besoetako haurrak zituztenentzat hauts esnea eta guretzat mortadela latak oroitzen ditut bereziki”. Egunak eman zituzten etxetik atera gabe hurrengo egunetan ere errepideak moztuta jarraitzen zutelako.



Itsasadarreko pasealekua eraitsi egin zuen uholdeak.



### **Amesgaiztoko esnaera**

Egun horretan Libe Irisarri Bidarte goizeko 9:00etan heldu zen Bilboko jaietatik. Ohean sartu eta gutxira amak esnatu zuen euriagatik kezkatuta. Itsasadarra gainezka egiten hasi zen eta bere nebarekin Erribera kaleko 64. zenbakian zuen zeramika tailerrera joan zen bertan zuen materiala babestera. Tabernan sartu ziren eta ura sartzen hasi zen arren, gizonak kartetan jokatzeko jarraitzen zutelako gogoratzen du. Arratoiak isatsak ikusten ziren ur artetik. “Baten bat etxera petritetik oinez heldu behar izan zen”.

Berak ere beldur handia pasatu zuela aitortzen du. “Ama eta ahizpa ohean ixilik zeuden bitartean, neba eta biok salan geratu ginen guardia egiten. Otoitz egiten genuen txokor txikiak erretzen genituen bitartean, tabakorik geratzen ez zelako”. Itsasadarretik pasatzen ziren behien uluak eta gabarrek egiten zuten zarata oroitzen ditu.

### **Tragediaren aurrean elkarlana**

Jakina denez, abuztu bukaera aldeko bolada berezia izan da Bilboaldean azken hamarkadetan zehar, Bilboko Aste Nagusia dela eta. Bada, 1983ko uholdeak urte hartako festak ospatzen ari zirela iritsi ziren. Gertaerak txozna-giroa zeharo birrindu bazuen ere, Bilboko Konpartsak elkartasun eta komunitate sentimenduaren erakusgarri izan ziren. Zentzu horretan, Deustuko konpartsak ere lankidetzari ariketa horretan parte hartu zuen. Tintigorrik, alegia.

Garai horretan honezkero konpartsako kidea zen Josu Samaniego. “Gogoan dut ostiral hura. Asteburua zetorrenez, botilak eraman genituen txoznara. Beraz, nik kotxea hartu nuen horretarako. Pixkanaka ohartzen gindoazen ura gorantz zihola. Horregatik, momentu batean Deustura itzultzea erabaki nuen. Bidean kontrolen bat zegoen arren, azkenean etxera iristea lortu nuen eta halaxe egin zuten beste zenbait konpartsakidek”.



Deustuko Unibertsitateetik ateratako argazkia.



Ramon y Cajal Etorbidea.

“Handik gutxira, uholdeak aurreikusi genuena baino askoz okerragoak izan zirenez, konpartsa-ko kideoi deitu ziguten laguntzera joateko. Eta horrela egin genuen, posible izan genuen neurria lagunduz. Gu bereziki Deustualdean jardun ginen, Erriberan batik bat. Ondoren, Bilboaldeko beste leku batzutura mugitu ginen garbiketa lanetan segitzera”.

“Autoritate gabezia egon zen momentu horretan. Gobernu zentrala erretiratu egin zen eta Eusko Jaurlaritza ez zen iristen. Beraz, guk botere alternatiba modukoa eraman genuen aurrera nolabait esanda. Izan ere, boteririk ez dagoenean norbaitek hartu behar du”.

### Gaur egun posible ote?

1983ko uholde haietatik, zorionez, horren egoera larririk bizi izan ez den arren, itsasadar-rrak gainezka egin du behin baino gehiagotan Deustualdean.

Izan ere, Zorrotzaurreko irla egiterako orduan, Bilboko Udalak plazaratutako proiektuaren zergatietako bat izan zen. “Obra horrek funtzio hidraulikoa du, eta, horri esker, ubidearen egungo edukiera handitu daiteke, uholdeen aurrean babes handiagoa lortzeko, bai Zorrotzaurren, bai

ibilguaren gainerako puntuetan” hala adierazi zuen Juan Mari Aburto Bilboko alkateak.

Bien bitartean, 2018an Zorrotzaurreko irla aurkeztu zen arren, Erriberako zenbait bizilagunek proiektuaren aurka protestatu zuten. Oraindik ere, zonaldeko bizilagun ugari uholdeen arriskua eta kezka hortxe dirauela adierazi digute. “Orduz geroztik halako ezbeharririk gertatu ez bada ez da hartutako neurrien ondorioz, baldintza meteorologikoak eman ez direlako baizik. Eraikitzen ari diren etxebizitzak berrien zutabeak hemen bizitzen denbora luze daramatenenak baino altuagoak dira. Horrek esan nahi du kontziente direla uholde berri batzuen arriskua oraindik ere existitzen dela” adierazi du Erriberako bizilagun den Nerea Olaziregik.



2023ko otsailean ateratako argazkia.



**EUSKARAREN  
INTERPRETATIO  
ZENTRO BERRIA  
BILBON,**

**ZATOZ!**

[www.euskararenetxea.eus](http://www.euskararenetxea.eus)

  
Euskararen Etxea

**GUSKARAREN  
INTERPRETATIO  
ZENTROA**

 **Bizkaia**  
Euzko Legebiltzariaren  
Euzko Legebiltzariaren



# JAI BATZORDEAK MUSIKAZ ETA HAINBAT EKINTZAZ JANTZI DU SANI

*Uztailaren azkeneko astean izan dute leku Saniko jaiak eta aurten ere kuadrillen txapelketa, gastronomikoak, gauetako kontzertuak eta Sani Rock Elkarteak antolatutako musika edizio berria izan dira ekintza nabarienak.*



**Testua eta argazkiak:** Saniko Jai Batzordea

Saniko Jai Batzordeak hilabetez hilabete egindako lanari esker, Saniko jaiak uztailaren 24tik 31ra ospatu dira. Prestaketa lanetan Jai Batzordea ez da bakarrik aritu, Sanin aktiboki aritzen diren Kontzertu Batzordea eta Txosna Batzordea ere lanean murgildu dira. Lehenengoa hainbat kontzertu prestatzeaz arduratu da eta beste urte batez, eskaintza musikala anitza izan da. Lehenengo gauean, Txopet eta The Cherry Boppers meet Patricia Reckless taldeak egon dira Levante Enparantzako oholtzan.

Hori ez ezik, asteazkenean Errondokok antolatutako Auzo Egunaren laugarren edizioa eta SaniRock'23-k izan zuten leku, lehenengoa Auzo Etxeko inguruetatik eta bigarrena, ohikoa denez, Levan-

te Enparantzaren muntatutako eszenatoki berezi batean. Sani Rock Elkarteak tokiko taldeez osatutako kartela aurkeztu du beste urte batez: Cecilia Payne, Chuleria, Joder!, Blakkat Mentxu eta Kinkila taldeek hartu dute parte. Jaietako kontzertuak ez ziren hor bukatu eta ostiralean, larunbatean eta igandean ere musika egon zen Levanten. Azkenengo gauean, Vutron Dantzall izan zen jaietako gauei amaiera eman ziena.

Ostiralean, urtero bezala, Saniko Gazte Eguna izan zen, aurten Gazte Asanblada eta GKS Deustu-Sani taldearen artean antolatuta. Gaueko musikariak Zoroen Kluba, Akats eta DJ Set Mereketenge izan ziren, lehenengoak euren azken diskoa aurkeztuz. Hori ez ezik, Gazte



Egunean hainbat ekintza egon ziren: frontoi txapelketa, rap show case-a, gazte bazkaria... Gazte Eguna eta gero, larunbatean, The Riff Truckers eta Madmuasel izan ziren gaua girotzeko arduradunak.

Gauekin bukatzeko, Gazte Konpartsa eta Eiharri Konpartsa izan dira enparantza apaindu duten bi txosnetan aritu diren taldeak. Lehenengoa, Gazte Asanbladak eta Errondoko Auzo Etxeak osatua, eta Eiharriren kasuan, Mugimendu Sozialistak osatua.

### **Programazio anitza auzokide guztientzat**

Saniko kuadrillentzat bereziki garrantzitsuak izan dira kuadrillek beraiek antolatutako ekintzak eta Jai Batzordeak antolatutako gastronomikoak. Horietan parte hartuz, puntuak irabazi dituzte kuadrillen txapelketan. Poteoak, saskibaloia, futbola, laburmetraien lehiaketa, tortilla eta paellak, kuadrilla guztien jaitsiera, koktelak... Helburua belaunaldien arteko harremanak sendotzea izan da; izan ere, Sanin urteroko aitzakia bihurtzen dira jaiak.

Txapelketatik aparte, ostalaritza komertzioek ere egitarau bereziak prestatu dituzte, kontzertuak ardatz izanda. Saniko Jai Batzordeak etxeetatik eta komertzioetatik banatutako programetan, orri berezi bat sartu du, non salatu duen Bilboko Udalak, inolako argudiorik gabe, zenbait ekintza bertan-behera utzi izana. Oztopoak oztopo, Saniko Jai Batzordeak, kuadrillek eta Saniko jaien antolakuntzan dauden talde guztiek aurrera egin dute aurten ere.



# **CAPITÁN SEGARRA BAPOREAREN NABIGAZIO GORABEHERATSUA**

*Bilboko portuan. Valentziako enpresa baterako egin zuten arren, sarri ibili zen  
Deustuko kostaldetik eta XX. mendeko historiaren hainbat  
pasartetan esku hartu zuen.*



Capitán Segarra ontzia, Deustuko zubia igarota. 1963ko azaroaren 3a. Argazkia: Juan Miguel Pando/IPCEfototeca.

**Testua:** Hektor Ortega

Argazki historikoak arakatzen, testu honekin batera doan irudiaren sorta aurkitu dut. *Capitán Segarra* ontzi mistoa da, Deustuko zubia igarota. Unibertsitatearen aurreko kaian atrakatu behar du. Fitxaren arabera, 1963ko azaroaren 3a da. Argazkiaren egilea, Juan Miguel Pando Barrero.

Gutako askok gomutan dauzkagu hantxe bertan atrakatzen zuten Líneas Pinillos konpainiako ontziak. Astero bat iristen zen, Kanarietan kargatutako fruta (platanok, batez ere), lehorreratzera. Bada, *Capitán Segarrak* ere Bilbo eta Kanaria arteko loturak egin zituen urte batzuetan, Líneas Pinillosekoek baino lehenago.

## **Euskaldunatik gduetara**

1918an eman zion Euskalduna ontziolak *Capitán Segarra* ontzia bere jabeari, Transmediterránea konpainiari alegia. Bapore mistoa zen, pasaia eta karga alegia, sasoi hartan ohikoa zen legez. Altzairuzko kroskoa 85 metro luze zen eta bere baitan bi mila tona hartu ahal zuen, baita 66 bidaiari ere.

Proba sasoi amaitu eta gero, Bartzelona-Kanariak zerbitzuan jarri zuten. Lehenengo Mundu Gerra amaitu berritan, Espainiak beste gudu bat piztu zuen, gudu koloniala, Rif aldea mendean nahi zuen eta. Bertakoek, bereberek gehien bat, Abd el Krim buruzagiaren gidaritzapean, euren lurraldeari eutsi, espainolen aurka jo eta

errepublika independentea eratu zuten. 1920 hamarkadako lehenengo urteetan *Capitán Segarra* sarritan ibili zen soldaduen garraioan. Are gehiago, 1925ean Al-Hoceimako lehorreratzean parte hartu zuen eta Rifeko artilleriak kalteak eragin zizkion.

Bereberek garaitu zituzten espainolek (frantzesen laguntzaz eta zazpi barrabaskeria eginda) eta orduan hasi zen tropak kontrako norabidean eramaten. Laster zen beste gatazka baten erdian. 1934ko urrian Asturiasko langileen iraultza zapaltzeko tropen garraioan aritu zen. Ceutan legionarioak eta erregularrak hartu eta Vigoraino eraman zituen. Juan Yagüe teniente koronela zihoa buru. Koloniak menderatzeko soldadu horiekin matxinada amatatu zuen, barrabaskeriak oraingo honetan kolonian barik metropolian eginda. Asturiarrak garaituta, *Capitán Segarra* Ceutara itzuli zituen irabazleak. Urte bi geroago, 1936ko udan, Yagüek sarraski izugarriak egin zituen, tropa horiexen buru, Extremaduran.

1936ko uztailean, Franco eta Yagüeren tropa kolonialak (eta Espainiako armadako atal garrantzitsuenak) Errepublikaren aurka altxatu zirenean, *Capitán Segarra* ontzia Almeriako portuan zegoen. Errepublikazaleek baporea eskuindar presoentzako espetxe gisa erabili zuten zenbait hilabetez. Ondoren, Mediterraneoan joan-etorrian ibili zen horniduren garraioan. Frantziako kaietara eta behin Sobietar Batasuneko Itsaso Beltzeko portuetaraino joan zen. Erasoetatik defendatzeko armak paratu zizkionten, metrailadore bi eta kainoi bat gutxienez.

### **Istripuak eta amaiera**

Gerra amaituta, Transmediterraneak ontzia berreskuratu eta penintsula eta Kanariak arteko zerbitzua egiten jarri zuen. Tenerifeko portuan zegoen 1944ko azaroan, lehegailuak lehorreratzen. Lanok egin bitartean, sua piztu zen ontzian. Hiru lagun hil ziren, tartean kapitaina, Joaquín Fuentes. Sei hilabete geroago, 1945eko apirilean, hondartuta gelditu zen Cadizko portutik hurrean. Handik irteteko karga uretara jaurti bazuten ere, hondoratu zen. Han gelditu zen, uztailean berriz ere ur azalera ekarri eta handik atera zuten arte.

Zirt edo zart, desegin ala konpondu, konpainiak bigarrena aukeratu zuen. 1950. urtera arte ontzian eduki zuten, zaharberritzen. Handik aurrera, berriz ere jarri zuten zerbitzuan. Sarritan ibili zen, goian esan bezala, Kanariak eta Bilbo arteko lotura eginez. Holakoetan Deusturaino sartzen zen.

Istripu gehiago gertatu zitzaizkion: Sevillara igotzeko ahaleginean birritan hondartu zen Guadalquivir ibaian. Las Palmaseko portuan, berriz, kaiko beste ontzi bat jo zuen. Ekuatore Ginean, azkenik, hondartuta gelditu zen Malaboko portutik hurbil 1965ean. Artean hura Espainiaren azken aurreko kolonia zen (1969an lortu zuen independentzia).

Bost urte geroago, 1970ean, Transmediterráneak *Capitán Segarra* baztertzea erabaki zuen. Bilbora (Santurtzira?) ekarri zuten, desegiteko. Hemen hasi eta hemen amaitu zen ontzi horren 52 urteko nabigazioa.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99





# NOLAKOA IZAN BEHAR DA GURE ELIKADURA UDAN?

Testua: June Grijalba Santos

Erantzuna argi dago: **udan urtean zehar egiten dugun modu berdinean elikatu behar gara.**

Beroaren eraginez arropa kentzeko ordua iritsi baino lehen zure elikadura barazki eta fruta freskoek, zereal integralez, fruitu lehorrez (eta omniboroa bazara, animalia iturriko elikagaiez) osatuta bazegoen, horrela jarraitu, ondo zoaz. Behar bezala elikatzeko, ez da beharrezkoa egunero gauza desberdinak jatea eta Masterchef-erako sukaldean etengabe berritzen aritzea. Gaur egun, autore askok ohartarazten dute “denetarik jatea”-ren gomendioa akats bat dela elikadura osasuntsu bat jarraitzeko. Izan ere, edozein supermerkatuko apaletan aurki ditzakegun jangai oro (opil industrialak, aurrez kozinatuak, esnekiak edo gozoak) gomendio horren barruan sartu liteke.

## Uda, aldaketentzako garai egokia

Uda garai ona izan daiteke zure elikadura hobetzeko. Beroarekin arinago jan nahi izaten dugu, eta sasoiko jaki ugari daude, zure platerak ikusgarriagoak eta gustagarriagoak egin ditzaketenak. Gainera, normalean, denbora gehiago dugu gutaz arduratzeko eta gure bizi-ohiturak hobetzeko.

Ez dizut mirarizko elikagaien zerrendarik emango, gomendio itxirik, udarako menurik aproposena, etab. Besterik gabe, merkatura gehiago joatea gomendatuko dizut, sasoiko frutak eta barazkiak erosi: paraguaiak, melokotoiak, nektarinak, aranak, angurria, meloia, gereziak, mahatsak, tomateak, letxugak, azalorea, kalabazina, pepinoa, kalabaza, berenjenak, piperrak... jarraitzen al dut? Anima zaitetz sukaldean gehiago sartzera, errezeta berriak bilatzera (sukaldeko blogetan milaka aurkituko dituzu), planifikatzera eta jaten duzuna antolatuzera. Ez garelako jaten duguna, jan nahi duguna baizik.

Zoritxarrez, udan txandakako berritsuak eta haien “sinesmenak” ere agertu ohi dira, eta, beraz, ihes

egin “hau harekin ez nahastea” moduko mezuak goraiatzen dituztenetaz. Elikagai edo plater batzuk deabrutu eta beste batzuk santutzen dituztenak ere badaude. Gogoan izan benetako elikagaiak ez direla telebistan ateratzen, ez direla ospetsuak eta zure merkaturik hurbilenean aurkituko dituzula. Horrela erosita, hurbileko elikagaiak kontsumitzen ariko zara, eta zure elikadurari dagokionez hobea izateaz gain, ingurumenarekiko iraunkorragoa ere izatea lortuko duzu.

Hona hemen udan barazkiak kontsumitzeko aholku batzuk: Crema hotzak eta entsaladak. hauek dira udako aurkezpen gastronomiko nagusiak. Garai honetako barazki-barietate handiak horrelako platerak prestatzen lagunduko du:

- Gazpatxoak: osagaiak askotarikoak dira, lekuaren, garaiaren, ekonomiaren eta, batez ere, prestatzen duenaren gustuaren arabera. Hala ere, osagai ohikoenak hauek dira: tomatea, piperra, pepinoa, tipula, baratxuria, ogi-mamia, oliba-olioa, ur hotza, ozpina eta gazta.
- Vichysoise: porru-krema bat da. Errezeta askok gurina eta beste esneki batzuk (esnegaina, esnea eta gazta) erabiltzea gomendatzen dute. Baina osagai horien ordean, oliba-olioa erabili daiteke. Gainerako osagaien artean, porruak, kipula eta patata bakarrik erabili daitezke. Hori dela eta, aukera arinagoa eta osasungarriagoa da.
- Entsaladak: pepino-xerrak piperbeltzarekin eta oliba-olioarekin, zainzuri zuriak maionesararekin, eta proposamen osoagoak, hala nola, empedrat. Kataluniako gastronomiako plater tipiko hau entsalada hotza da, barazkiak (tomatea, tipula eta piper berdea eta gorria) eta oliba beltzak, leka zuriak eta bakailaoa tartekatzen dituena.



**Testua:** Andrea Corrales

Duela gutxi, Bilbon urtero bezala ospatu den BBK Live jaialdia egon den bitartean, Bilboko Udalak ostalaritza lokalen gaueko ordutegia luzatzeko baimena eman zuen. Jakina da ere beste zenbait jaiegunetan ere baimen hori luzatzen dela; hala nola, Bilboko Aste Nagusian, edota Gabonzaharrean, Halloween egunean... Hala ere, Deustualdean ez ezik, beste zonalde batzuetan ere neurri horiek ez dira batera nabaritzen.

Izan ere, ordutegiaren luzapenaren helburu nagusia zera da: lokalek jaialdi hauek erakartzen duten jendetzari esker etekin ekonomikoa atera ahal izatea. Baina gugandik urrun ospatzen diren jaiegunetan ez dute aparteko berezia auzoetara erakartzen. Beraz, aipatutako neurriak taberna gutxi batzuetan baino ez dira nabaritzen. Badaude, ordea, Deustuko ostalaritzarako garrantzitsuak diren beste data jakin batzuk, eta hauek ez da baimen berezirik esleitzen, ordutegiari dagokionez. Deustuko Jaietan, adibidez, bi orduko luzapenak sekulako ezberdintasuna suposatuko luke tabernetako kutxetan. Gaueko 01:00etan badago oraindik txosnetara joateko gogorik ez duen jendea, eta Deustuko Herriko Taberna, esaterako, jendez gainezka egoten da egun horietan. Bezero guzti horiei bi orduz azken tragoak jarri ahal izateak edota afariak apur bat gehiago luzatzeak benetako aldea suposatuko luke. Era berean, Inauterietan auzoko jendeak tabernetan gaua apur bat gehiago luzatu

ahal izateak, eta auzo bakoitzean berorrek dituen egun berezietan ordu pare bat gehiagoz juerga mantentzeak, bai ostalaritzako lokalen kutxetan zein auzoko giroan nabaritutako genduke.

Jai herrikoiak eta auzoetako ostalaritza indartzeko oso lagungarriak izango lirateke ordu horiek. Tabernetan garai gogorak bizi ditugu gaur egun ekonomikoki; hala ere, benetako etekina ateratzen den egun horietan ordu gorietan eteten da jarduera. Hortaz, bada kontuan hartzeko kontu bat auzoak eta euren bizitasuna mantentzeko. Deustu edo Bilbo inguruko beste herri batzuetako jendeak makro-jaialdien parean bertan gelditzea aukeratu dezan, herriko jaietan eginahalak eta laguntzak jarri behar dira. Oso erraza da jendeak goizeko seiak arte zabalik mantentzen den diskoteka edo jaialdia aukeratzea; izan ere, Herriko Tabernak 5 ordu lehenago ixten baldin badu, hori bai dela ezberdintasun nabaria.

Azken finean, gureak sentitzen ditugun jai eta tabernetan gaua moldagarria izatea behar dugu, bai eta giro sanoa sustatzen den lekuetan ere. Askok eskertzen da Aste Nagusiko txosnek ordu txikietan lan egin ahal izatea, baina Deustun ere hori nahi eta behar dugu. BBK Live jaialdiak, bere publikoak eta horrek guztiak ordezkatzeko duen jai ereduak ez du inongo eraginik Deustuko tabernetako gaueko jardueran.

# berbetan

ITSASO LARRAMENDIrekin

Deustuarra eta arkitektoa

*“Hirigintza eta arkitektura ez*

*Deustuarra, Arkitekturan lizentziatua eta Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko masterra ikasitakoa. Larramendik bere lana jorratzeko pertsonen eguneroko bizitza jartzen du erdigunean. Hots, arkitektura parte-hartzailearen defendatzaile sutsua. Hala, Tipi kooperatibak funtsezko elementutzat hartu du bere proiektua abian jartzeko.*





## *dira politikoki neutroak”*

### **Nola deskribatuko zenuke Tipi?**

Tipi kooperatiba bat da; hain zuzen ere, egiten ditugun proiektuak eraldaketa eta gai ezberdinak lantzen bilatzen duena. Gure lan guztiek ezaugarri bera dute amankomunean: modu parte-hartzailean garatzen direla. Nahiz eta hirigintza eta espazioen eraldaketa gure lan ildoak bada, proiektuek duten helburua gure eguneroko bizitzak eraldatzea eta hobetzea da. Beraz, hori da egiten duguna, pertsonak proiektuen erdigunean jarriz. Kooperatiban diseinu lana egiten dugu. Guk prozesuak lankidetzan egituratzen ditugu eragile ezberdinek parte hartu dezaten, eta proiektu komun batera heltzeko. Hor amaitzen da gure lana, marrazketaren parte beste bulego batek egiten du. Kriterio eta baldintzetan geratzen gara, alegia. Beraz, udalak plaza bat modu parte-hartzailean berri nahi baldin badu, guk parte-hartze prozesu hori egiten dugu eta irizpideak ezartzen ditugu; adibidez, honako hau gune lasaia izango da, hemen esertzeko bankuak izango ditu... Hots, espazioaren banaketa. Egia da proiektuak egiteko eta garatzeko modu berriak bilatzen saiatzen garela beti, parte-hartzean berritzen eta gai berritzaileak jorratuz.

### **Hain zuzen ere, parte hartzerako eta berdintasunerako proiektuen zuzendaritzan diharduzu. Zerk bereizten du zure lana?**

Nik hirigintzarekin, espazioarekin eta arkitekturarekin harremana duten proiektuak

bideratzen ditut, batez ere. Hala ere, beste arlo batzuetako proiektuak ere egiten ditut. Azken finean, kooperatiba txiki izanik, gure artean antolatuko behar gara. Egia da guk tokiko pertsonen begiradatik lan egiten dugula, proiektua bideratuta dagoen lekuan bertan bizi diren eta erabiltzen duten pertsonen begiradatik. Horregatik, mekanismoak bilatzen saiatzen gara tokiko pertsonen jakintza balorean jartzeko eta gure proiektuetan txertatzeko. Azkenean, arkitektura eta hirigintzari buruz hitz egiten dugunean, arkitektoek gauza batzuk badakizkitez. Baina lekuan bertan bizi garenok ere jakintza handia dugu. Nahiz eta oso teknikoak ez izan, garrantzitsua da proiektuen parte izatea. Hori da nik bilatzen dudana.

### **Arkitekturaren barruan, hirigintzaren potentzial politikokoan sinisten duzula esan ohi duzu. Hau da, pertsonentzako hiri-inguruak sortzearen beharrean.**

Politika esatea oso zabala da. Baina, hirigintza eta arkitektura ez dira politikoki neutroak. Honakoa eskala handiago edo txikiagoetara eman dezakegu, noski. Hiri baten plangintza egiterakoan, etxebizitzetarako bakarrik osatutako hiri eremu berri bat egitea erabakitzen badugu, barruti horretan auzo-bizitza txikiagoa sortuko da erabilera ezberdinak nahasten dituen eremu batean baino. Bestalde, bertan esleitutako Babes Ofizialeko Etxebizitzak beste leku batera

**“Arkitektoek gauza batzuk badakizkitez. Baina lekuan bertan bizi garenok ere jakintza handia dugu”**



## ▷ ▷ SAKONEAN

### **2016an kooperante lanetan aritu zinen Kenyan. Zer ikasi duzu esperientzia horretatik?**

Eusko Jaurlaritzako programa batekin joan nintzen. Bertan, hiru hilabete eman nituen beste kide batekin garapen komunitarioa eta nekazaritza ekologikoa (permakultura) bultzatzen zuen erakunde batean lanean. Hor egiten zutena ikasten ibili ginen. Eraikuntzak autoeraikiak ziren, inguruko materialekin egindakoak. Hau da, lurra buztinez osatuta zegoen eta, horrekin, urtean behin ladreiluak egiten zituzten. Buztina hartu, ladriluak moldeekin egin, egosi eta horrekin eraiki edo ladreiluak saldu. Estalkiak txapekin egiten ziren, eta zaharragoak zirenak lastoz osatutako estalkiak zituzten. Baina gehienak txapazkoak ziren, euriari aurre egiteko hobeak zirelako. Sukaldatzeko, sukalde txikiak zituzten. Arkitektura askoz auto-eraikiagoa eta lekuan lekuko materialekin egindakoa zen. Baita efimeroagoa ere. Izan ere, familiak hazterakoan etxe berriak eraiki behar zituzten.

### **Horietan plangintzarik zegoen herriak edo hiriak sortzeko? Espazioek hierarkia zuten?**

Ni landa-eremuan egon nintzen, orduan baserri-eremuen antzekoak ziren. Bertan, bakoitzak bere lur eremua eta bere etxea zuen. Askoz ere modu organiko eta informalagoan. Hierarkiari dagokionez, sala-sukalde bat eta logelak izaten zuten etxeek. Komunak, adibidez, kanpoaldean zeuden. Komun lehorrak ziren; hau da, ura ontzien bitartez bota behar zen. Hortaz, askoz ere arkitektura sinplegoak ziren. Etxeak elkartzeko eta lo egiteko lekuak ziren, gehienbat.

eramatea erabakitzen badugu ere, segregazio ekonomiko bat sortzen ari gara. Azkenean, hartzen ditugun erabakiek badute kutsu ideologiko bat. Eskala txikira etorrira, plaza berri bat sortzerako orduan asfaltoa baino ez badugu jartzen eta banako bankuak bakarrik jartzen baditugu, hor harremantzeko modu bat sustatzen ari gara. Harremanik ezakoa, alegia. Askotan, arkitektura paisaia edo dekoratua besterik ez balitz bezala hartzen da, baina eragina du gure bizitzetan.

### **Hirigintzaren potentzial politikoarekin lotuta, bereizketarik ikusten duzu gaur egun egiten diren eta iraganean egiten ziren proiektuen artean?**

Batez ere, hirigintza modernoaren eraginez. Adibidez, Deustuko Erriberako proiektuan etxe berriak izango dira, unibertsitate pribatuak, etab. Gauza gutxi batzuk mantendu diren arren, mantendu beharreko asko eraitsi dituzte mantenduko zirela esan arren. Bizilagunek etxebizitza eta fabrika batzuk mantentzea lortu zuten, baina hor planteatuko diren bloke eta hirigintza mota oso ezberdina da. Ezberdintasun nagusia kalean dago. Horrek arkitektura modernoarekin du zerikusia. San Inazio batean, esaterako, kalearen jarraikortasunak eta eraikinen eskalek oinezkoentzako hurbiltasuna adierazten dute. Gainera, kalean komertzioa nabaria da, eta horrek kale-bizitza sustatzen du. Deustu bera ere kale ardatzez osatutako da, alegia. Aldiz, Erriberan egiten ari direna bloke isolatu eta bata bestaren atzean jartzean oinarritzen da. Horrela sortzen diren espazioak oso ezberdinak dira. Espazio disgregatu eta apurtuagoak, izan ere.

### **Orduan, hirigintza modelo zaharra moderno baina hobea dela esan genezake?**

Ez, diferentea da. Egia da, nolabait, hi ribilduan hierarkiazko ardatz batzuk dituzunean joan etorria kale batzuetan





biltzen dela. Horrek ahalbidetzen du kale nagusiago horietan aktibitate nagusiak ere egotea. Beraz, errazagoa da elkar topo egitea. Aldiz, zerbait irregularragoa eta hierarkiarik gabekoa bada, auzo bizitza sortzea zailagoa izan daitekeela iruditzen zait. Ez naiz ausartzen esatera forma bat bestea baino hobea den. Baina guk egiten dugun lanak asko edaten du feminismoak hirigintzari egin dion ekarpenetik. Horretan, proposamena pertsonen eguneroko bizitza erdigunean jartzea bada, ulertu behar da eguneroko bizitza ez dela bakarrik lanera joan eta etxera itzultzea. Baizik eta harremanak izatea, pertsonak eta gure ingurua zaintzea ere badirela gure bizitzaren parte. Orduan, nola erraztu daiteke hori? Aniztasuna duten hiri inguru edo auzoak sortzea oso interesgarriak dira. Horretarako, bost ezaugarri izan behar ditugu kontuan: Aniztasuna (errenta edo adin ezberdineko pertsonak), hurbiltasuna (erabilera anitzeko zerbitzuenak), autonomia (pertsonen mugikortasun eta segurtasunean), bizitasuna (kalean gauza erakargarriak gertatzea) eta adierazgarritasuna (herritarron memoria kolektiboa espazioan islatuta egotea).

**Genero-rolak ere landu izan dituzu Aldiri aldizkarian. Bertan, aipatu duzu espazioen diseinuak eragin handia duela umeez ikasten dituzten genero-roletan eta, beraz, jarretetan.** Egia da espazioa zelakoa den baldintza-

tzen duela erabiltzen dugunon jarrera. Jolastokien kasuan, argi ikusten da kirol edo ekintza zehatzetara bideratuta daudela. Askotan, maskulinitate normatiboa jartzen da erdigunean. Horren ordez, lasai egoteko edo jarduera zehatz batzuetara bideratuta ez dauden gauzak egiteko aukerak dituen jolastoki bat sortzen baduzu... azken finean, beste modu batzuetara jolasteko aukerak eman behar dira. Etxebizitzaren kasuan ere badago zer esana. Diseinuetan ikus dezakegu zer erabilera dira nagusi eta zeintzuk daude bigarren maila batean. Hala ere, ekintza batzuk etxean zehar egiten dira. Beraz, hori toki finko eta zehatz bat eskainiz erraz daiteke. Espazio espezifikoak, alegia. Baina hori ez da egiten. Etxebizitzak atsedenerako eta harremanetarako espazioa dela pentsatu izan ohi dugu, baina lanerako espazioa ere bada.

### **Zer eskatuko zenioke, adibidez, Deustuko hirigintzan lanean diharduenari?**

Niri pena handia ematen dit San Pedro plazako kiosko eraitsi izana. Ezin dut ulertu. Nik auzotarrei zer nahi duten erabakitzeke aukera zabaltzea eskatuko nioke, botere lagapen bat egotea, nolabait. Udaletik hautu politikoak eta teknikoak egoten dira auzoak eraikitzen edo eraldaketak egiterakoan. Baina bertan bizi direnen iritzia eta ikuspegia jakitea garrantzitsua da. Hori modu askotara eman daiteke, baina argi dago gaur egun ez dela ikusten.

**“Askotan, arkitektura paisaia edo dekoratua besterik ez balitz bezala hartzen da, baina eragina du gure bizitzetan”**



KIROLA

## Zestapunta talde bat aurkeztu dute San Inazio

Bilboaldeko ikastetxeetako ikasleek zestapuntara jokatzeko aukera izango dute eskolaz kanpoko ekintza bezala. Joan den ekainaren 2an San Inazio Levante Jai Alai frontoian, Bilbao Euskal Pilota Kluba eta kirol honetan espezializatutako Eraman! Enpresarekin batera, zenbait gurasoek ekimen honen aurkezpena eraman zuten aurrera. Hala, ekitaldiari esker bertaratu ziren gazteek euskal kirol honen berezitasunak ezagutu ahal izan zituzten kirol honetako punta-puntako kirolarien bitartez. Honezker, hogeiki ikasle inguru daude izena emanda frontoia izen berbera daraman zestapunta eskolan. Inhart Arakistain jokalaria profesionalak bi orduko sesioak eskainiko ditu asteazkenetan 6 eta 11 urte bitarteko bi ume talde desberdinentzat.



ISTRIPUAK

## Sute larria “Ta Chien” jatetxe txinatarrean

Joan den uztailaren 12an gure herriko jatetxe zaharretako batek su hartu zuen, Heliodoro de la Torre kaleko 12. zenbakian kokatuta dagoen “Ta Chien”, hain zuzen. 80. hamarkadan sortua, Deustualdean ireki zuen lehendabiziko jatetxe txinatarra izan zen. Gertaerari dagokionez, sutea 17:30ak aldera lokalaren tximinian sortu zen lehendabiziko zantzuen arabera. Ezbeharraren ondorioz, lokaleko langileak eta jatetxearen ondoan dauden 12., 14. eta 16. zenbakietako bizilagunak atera behar izan zituzten Bilboko Udaltzainek. Zorionez ez zen inor zauritua suertatu; hala ere, zerbitzu medikuek akzio horretan parte hartutako ertzain bat eta hustutako etxebizitzetako bizilagun bat lagundu behar izan zituzten.



KIROLA

## Umeentzako saskibaloia taldea San Inazio

2023-2024 ikasturtetik aurrera, haurrentzako saskibaloia talde bat izango da San Inazio. Intxisu eta San Inazio eskoletako zenbait gurasoen ekimenetik abiatuta, Deustualdeko beste zenbait ikastetxeek duten saskibaloian aritzeko aukera berbera San Inaziora eramatea erabaki dute. Taldeak Indar Saski izena izango du, auzoko gizonezko saskibaloia senior talde bakarrarena, alegia. Hurrengo urtera begira, dagoeneko 6 talde desberdin daude eratuta. Izan ere, oraindik jokatzen hasi ez diren arren, antolatzaileek otsailetik daramate ekitaldi desberdinak antolatzen, taldeari ikusgarritasuna emateko asmoz. Ekimen honek osasuna eta ekintza fisikoa saskibaloia bitartez zabaltzea izango du helburu, San Inaziorerako lotuta dagoen talde bat sortuz.




TAO

## Arangoiti, Bilboko TAOren 16. gunea

Bilboko TAO zerbitzuaren udako ordutegiaren hasierarekin batera, Arangoiti auzoan ere martxan jarri da zerbitzua, uztailaren 3tik aurrera. Zerbitzu berriak B urteko tarifa izango du 2023ko ekitaldian zehar: 48 eurokoa urtean edo hiruhileko naturalen arabera hainbanatuta. Uriko gainerako lekuetan bezala, zerbitzua astelehenetik barikura emango da, 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 20:00etara. Zapatuetan ez da TAOrik egongo eta abuztuan goizez bakarrik funtzionatuko du. Hala ere, kontuan izan behar da orain udako ordutegia dagoela indarrean. Horrenbestez, abuztuan zehar zerbitzuak 9:00etatik 13:30era bakarrik funtzionatuko du eta, larunbatekin batera, abuztuaren 15ean eta 25ean ez da TAO zerbitzurik izango.





Urtea: 1952

Txema Luzuriaga (Gerardo Sienrak utzitako argazkia)

## *Tubos Forjados*


Irudi honekin, Deustuko industriari buruz argitaratu dudan azken irudia, Deustuko Elizateko jende guztiari omenaldia egin nahi diot, haiek gabe industrializazio hau ezinezkoa izango baitzen. Tubos Forjados enpresa 1892an sortu zen, eta antzerako ezaugarriak zituzten sektoreko beste enpresa batzuk bezala (Aurrera, Talleres de Zorroza, Talleres de Deusto, Franco-Española de Cables...) muga-zerga babesgarriagoak aldarrikatzearen babesean sortu zen.

Fabrika Elorrietan ezarri zen. Burdinazko eta altzairuzko hodi gozoak, soldatuak eta irauliak fabrikatzen zituen. 180 langileko plantillarekin, Bizkaiko Labe Garaietako altzairuarekin eta Alemaniatik inportatutako makineriarekin soldatutako hodia topera ekoizten hasi ziren; teknika horri esker, 65 mm-ko kanpo-diametroko hodiak egin zitezkeen.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez  
**Prest!**-en  
tel. 94 447 10 42  
billbokoaldizkariak@gmail.com


△ ∇ △ L △  
TATTOO STUDIO  
  
Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda  
tlf. 640 903 311  
instagrama: @azala.tattoo

**YVES ROCHER**  
FRANCE  
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303 

**Optica**  
*Avenda*  
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
SAN INAZIO 94 475 11 24

**ATXURI**  
**TABERNA**  
Luzarra 1  
Deustu  
946 75 40 17

**BREST**  
kafetegia  
Blas de Otero, 5  
Tfnoa: 94 447 95 43

**Alonso Pertsianak**  
Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
48015 Deustu-Bilbao  
Tel.: 656 410 475  
alonsoper@outlook.com 

  
Urrunago zertarako?  
Deustuko Liburudenda  
San Pedro Plaza 4


*Yoki Berrri*  
Taberna  
Good vives!  
Luzarra, 6 - Deustu  
@tokiberritaberna

1924tik Deustun  
**Tintoreria**  
**La Flor**  
  
Julio Urquijo 3 - Deustu  
94 475 18 29  
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

**artez** euskara zerbitzua   
**Probatu herrizki.eus**  
ANDROID APP Google play   
ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO 

 Ramon y Cajal, 8 behea  
48014 Deustu  
tel. 94 475 22 33  
matxintxu@aeknet.net  
**Matxintxu**  
aek ■ euskaltea  
Matrikula zaitez! 

**Nailan**  
Parquetak - Bamizak  
Morgan kalea z/g  
48014 Deustu - Bilbo  
tfno: 94 475 67 84  
nailanparquet@euskalnet.net

 **RONDOKO**  
HORTZ KLINIKA  
**Iratxe Jimenez Bobadilla**  
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855  
Odontologia orokorra eta prebentiboa  
Ume eta helduak  
Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
Peridontzia eta protesi kengarriak  
Ortodontzia  
PADI  
OSAKIDETZA  
Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
E.P.S. 425/97

**Bitxidenda**  
**Sabin**  
Erlojudenda  
Rafaela de Ibarra, 6  
Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS**  
**KM**  
CERRAMIENTOS  
**Deitu eta Ikusi!!**  
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK  
Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
TEL. 94.447.70.32  
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
elektrizitate eta margo-lanak  
2daurrelan@gmail.com  
669 42 76 23  




## Zein izan da Frantziako Tourraren eragina gure egunerokotasunean?



**David**  
**San Inazio**

Nire ustez, gure herriaz hitz egiteko, erakusteko eta eza-gutzeko modu berri bat izan da. Nahiz eta oso txirrindularitza zalea ez izan, Frantziako Tourrari buruz aritu gara la-gunartean.



**Raul**  
**Arangoiti**

Orokorrean eragin positiboa izan du auzokideetan, egun horretan ilusioa eta giro polita sortu zelako. Baina arlo ekonomikoan, ez dut uste Tourra ekartzeak izandako kostua merezi duenik, auzoetako dendetan izandako eragin zuzen ezagatik



**Irati**  
**Arangoiti**

Egun horretan Txapel Jaiak ospatzen ari ginen eta nahiko bitxia izan zen txirrindularitza zaleak Arangoitiko koadrilekin nahastea. Puntu gorridun kamiseta zeramaten guztiek kuadrilla berri bat ziruditen



**Esti**  
**Arangoiti**

Frantziako Tourrak eragin positiboa izan du turismoan. Baina garraio publikoaren aldi baterako prezioen igoerak kontrako eragina izan du.



**Aitor**  
**San Inazio**

Txirrindularitzako lasterketarik garrantzitsuen Bilbotik hastea berri ona izan da, zaletuok munduko txirrindulari onenak zuzenean ikusi ahal izan ditugulako. Horrekin batera, gure herria munduan zabaltzeko aukera ikaragarria izan da, bai eta jendeak txirrindularitza ezagutzeko ere.



**Gaizka**  
**Deustu**

Euskal Herriko herri nortasunarentzat bultzada handia izan da.



# harkua bete herria

>> EUSKAL MUSIKA

## EUSKAL MUSIKA, EGUNGO GIZARTEAREN ISLA

Testua: Itxaso Sainz Nuñez



Musikan pentsatzen dudanean, hamaika kontu datozkit burura: adierazpen artistikoa, kulturala, munduaz askatzeko modua, eguna alaitzeko bidea... baina benetan, zer da musika? Sarritan entzun behar izan dut gaur egungo taldeek ez dutela “musika” egiten edota jada ez dela sortzen garai bateko “benetako musika”. Orduan, neure buruari honakoa galdetzen diot: Zuzen daude? Azken urteotan, gure musika arima galtzen ari da ala trantsizio fase baten aurrean gaude?

Erantzun baino lehen, gatozen euskal kantagintzara. Seguruenik, musika euskal kulturaren alderdi emankorra da. Atzean gelditu dira Mikel Laboa, Benito Lertxundi edota Maixa eta Ixiar abeslariari garaiki; alabaina, ez ditugu ahaztuko, gogoan izango ditugu, noski. Gure ondarearen parte dira. Izan ere, Mikel Laboak berak hala zioen moduan, “gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak”. Hau da, belaunaldi berriei lekukoa eman behar zaie, Euskal Herriko musika eszenan bidea egin dezaten.

Eta halaxe gertatzen ari da, talde nahiz bakarlari berri ugari haien sorkuntzen ikusle bilakatu gaituzte. Dena den, euren ekoizpenek ez dute bat egin orain arte euskal musikak, gehienbat, hartu

izan duen norabidearekin. Gure artistek egungo testuinguruari eta gizarteari egokitzeko premia ikusi dute, euren beharrak asetu nahi dituzte, euskal musikan zeuden aurreiritziekin amaitu, generoen arteko hormak puskatu... Euskal musika mundura zabaltzeko nahia begi-bistakoa da; horrexegatik, haize freskoz datozkigu, formatu, molde zein mezu berriak helarazteko asmoz.

Era berean, ezin dugu ukatu musika egiteko modua ere zeharo aldatu dela. Egun, inoiz baino baliabide gehiago daude artisten eskura. Horien artean, mugimendu musikala goitik behera aldatu duena: teknologia. Horri esker, taldeak soinu eta erritmo askotara irits daitezke; estilo ezberdinen ukitua eman diezaiokete haien musikari, funtsa galdu barik.

Zenbait talde aipatzearen, *J Martina* eta *ETS* izango ditut hizpide. Egia esan, nekez aukeratu ditut; hain da oparoa gaurko musika eszena! Hori bai, biak “musika modernoan” murgilduta badaude ere, teknologia haien erara darabilte. *J Martinak* autotunea nahiz bi abeslariari ahotsen topagune melodikoak darabiltzan bitartean, *ETS* zer demontre dabil? Orain arteko guztiarekin apurtu du, hamaika estilo zein erritmoz elikatzen. Baina hori ez da euskal musika garaikidearen xedetariko bat? Nolabait apurtzailea izatea?

Bada, buelta gaitzen hasierako gogoetara: betiko euskal musika desagertzen ari da? Baietz borobilik ezin dezaket eman; hala ere, egun bestelako generoek dute indar handiena. Finean, betidanik hain errotuta izan dugu euskaldunok tradizioa, ondarea zaindu beharra... baina hori da bide bakarra aurrera egiteko? Ez da bizi ala iraun kontua. “Betikotasunetik” ihes egin behar dugu, aldaketa ez da etsaia, gure musika aberasteko aukera baizik. Euskara eta euskal musika mundura zabaltzeko unea heldu zaigu, uko egingu diogu, ala?


## BBK Livean ere... euskaraz?

Aurtengo BBK Live jaialdian mundu osoko musika taldeak izan ditugu. Horrekin batera, herrialde askotako turistak ere bertaratu dira. Bisitari guztiak gustora sentitzeko eta musikaz gozatu ahal izateko hiru hizkuntza erabili ditu antolakuntzak: Gaztelania, Euskara eta Ingelesa.

Hala ere, jaialdian zehar ikusi diren ortografia eta gramatika akatsekin argi ikusi dugu euskararen "aldeko" apustua. Hona hemen adibiderik adierazgarrienak:




Kobetamendiko gunera itxaropen gabe igotzea ere eskaintzen zen.



Nork??!



Jaialdiko eskumuturrekoak jaso ordez, eskumuturrak jasotzen ziren.



Eskerrak O'O eta glutenik gabeko garagardoak euskaragai direla.



>> HIRIGINTZA

## HIRIGUNeko ZUHAIzAK: ARNASGUNE EDO OZTOPO

*Stop Tala Deusto Plataformak mobilizazio ugari antolatu ditu azken asteetan, Agirre Lehendakariaren Etorbidean Bilboko Udalaren aginduz egiten ari diren zuhaitzen mozketa salatzeko.*

**Testua:** Axular Arostegi

Joan den urteko azaroaren 28an, Bilboko Udalak Agirre Lehendakariaren Etorbidearen berritze lanak hasi zituen, Done Petri Plazan egindako lanen jarraipen modura. Hala, behin Don Bosco Biribilgunetik Sagrada Familia Kalera bitarteko zuhaitz guztiak moztuta, beste horrenbeste egin dute azken hilabetetan Enekuri Etorbidekoekin (momentuz alde batekoak soilik). Era horretan, Udalak adierazi duenez, proiektuak etorbide honetako 128 aleren mozketa suposatuko du orotara, beste espezie bateko 125 landatuta. Moztutako zuhaitz guztiak zumarrak dira eta hiruhortzeko astigarrangatik ordezkaturako dira. Ekintza hau aurrera eramateko, Udalak 50 urteko zumar hauek gaixorik daudela eta biztanleentzat arriskutsuak direla adierazi du; izan ere, horietako batzuk erori egin baitziren azkenaldian.

Horren harira, Udalaren erabakiaren aurkako desadostasuna plazaratzeko, sona nabarmena lortu duen plataforma bat sortu zen joan den ekainean: Stop Tala Deusto. Deustualdeko zenbait biztanlek, mozketaren eragin ekologikoaz arduratuta, lehendabiziko elkarretaratzea antolatu zuten ekainaren 12an. Geroztik, mobilizazio ugari egin dituzte 2500 sinadura inguru jasoz eta Deustuko eragile desberdinen babesa lortuz.



Una producción del Teatro Arriaga  
**TEATRO ARRABASA ANTZOKIA**

**EL VIAJE A NINGUNA PARTE**  
abuztuaren 25etik irailaren 17ra

Egilea: FERNANDO FERNÁN GÓMEZ  
Zuzendaritza: RAMÓN BAREA

Antzezleak: PATXO TELLERIA, MIKEL LOSADA, RAMÓN BAREA, ITZIAR LAZKANO, IRENE BAU, OLATZ GANBOA, DIEGO PÉREZ, ADRIÁN GARCÍA DE LOS OJOS.

[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)



## Helburu zehatzak

Plataformaren aldarrikapenak zeharo lotuta daude Udalaren bertsoiarekin. Alabaina, instituzioak proiektua justifikatzeko erabili dituen zenbait arrazoi zalantzan jartzen dituzte Stop Tala Deustukoek. Alegia, plataformako kideek Etorbideko zumar batzuk gaixo daudela onartzen duten arren, ez dute uste, inolaz ere, zuhaitz guztien egoera denik. Horrexegatik, aleen banan-banako azterketa eskatzen dute. “Hasiera batetik zailtasunak izan ditugu Udalaren txostena lortzeko. Printzipioz, haiek guztiak gaixo daudela diote, baina ez dute inongo frogarik eskaintzen hori egiaztatzeko. Izan ere, biologa espezialista batek eta zuhaitz hauekin lan egin duen jendeak adierazi digute ez daudela guztiak gaixo” adierazi du Marta Fernanz plataformako kideak.

## Naturak traba bat suposatzen duenean

Orain arte 60 zumar moztu dira eta oraindik beste 68 geratzen dira mozteko. Plataformako kide den Silvia Rodrigoren esanetan, “Zumarra hiriko ingurunean karbono dioxido gehien xurgatzen duen zuhaitzetako bat da. Beraz, guk eskatzen duguna zera da: alea benetan gaixorik dagoen kasuetan, ezaugarri hori duen beste zuhaitz mota bategatik aldatzea (Akazia hiruarantza, esaterako)”. Bada, moztutako zuhaitzak 50 urtetik gorakoak izanik, arlauzak eta espaloiak altsa ditzaketen sustraiak dituzte; hain zuzen ere, landatu nahi dituzten zuhaitzek (hiruhortzeko astigarra), ordea, ez dute horrelako eragozpenik eragiten. Horixe da, hain zuzen, plataformako kideen ustez, ekintza hau aurrera eramateko arrazoi nagusia.

## Lege orokor bat helburu orokortzat

Egin dituzten mobilizazioen bitartez, Deustuko biztanleen babesa ez ezik, Bilboaldeko beste auzoetakoek ere jaso dute. Izan ere, azken horiek beraien auzoetan baita ere antzeko proiektuak egiten ari direla transmititu diete. Ildo horretan, “Hiri Berdeak” elkarteak sortu dute. “Guk daukagun helburuetako bat, Deustuko mozketak gelditzeaz gain, hiriko arboladia babesteko lege autonomiko bat sortzea da, Madrilgo udalean existitzen den gisara adibidez” adierazi du Fernandezek.







# PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

## Karrillera takoak boniato eta piperrekin



**IBAI GOIKOETXEA**  
@goikochef





## Nola egin?

1. Karrillerak ondo markatu alde guztietatik eta gorde.
2. Kazola berean, barazkiak 10 minutuz kozinatuko ditugu.
3. Gero, karrilerak, baso bat ardo eta ura gehituko ditugu estali arte. Irakin bezain laster, su baxu batera jaitsi eta ordu eta erdiz sukaldean utziko dugu.
4. Kendu karrilerak eta birrindu saltsa.
5. Karrillerak sartu eta beste ordu erdi bat kozinatuko dugu gurinezko dadoekin batera.
6. Bestalde, boniatoa moztu eta frijituko dugu.
7. Amaitzeko, arto- edo gari-opil bat berotu, karrillerak saltsa eta guzti jarri, piparra batzuk moztu eta boniatoa gainetik jarriko dugu.

10eko pintxoak, gozatu eta on egin!

## OSAGIAK

- Tipula bat*
- Piper berde erdia*
- Piper gorri erdia*
- Porru bat*
- 2 azenario*
- Baratzuri 1*
- Gatza eta piperbeltza*
- Baso bat ardo beltz*
- Baso bat ur*
- Karrilerak*
- Lau dado gurin*
- Boniatoa*
- Piperrak*



## Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako  
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO

# Prest?

**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**



# kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



**DANEL ABANDO OLABARRI**

*Irakurzalea*

## AGURRA EDO HALAKO ZERBAIT

Azken testu hau, maitiak, zuekin! Nola asmatu azken mezuarekin ordea, nola aukeratu hitz egokiak dagoeneko ohitura bilakatu den idazketa-ariketa honi itxiera emateko? Tira, besterik gabe, errazenera joko dut: adeitasunez, agurtzen zaituztet.

Baliteke aurrekoa eskas samar geratu izana, hortaz, zera gehituko dut: agurtu bai, baina ni ez noa inora. Edo bestela esanda, herrian topatuko dugu elkar, gure herrian, Deustun. Izan ere, hori da, ene ustez, PREST! bezalako kultura-jarduerak egin diezaguketen ekarpenik handiena: Deusturen herri-izaera gudan ernatzea. Alegia, gure herriaren historia, pasarte gogoangarriak, gaur egungo auzokideen balentriak, proiektu interesgarriak edo era guztietako ekitaldiak ezagutzeko parada eskaintzea, eta euskeraz gainera. Niri dagokidanez, Bihotz Alai dantza taldeari zor diot Deustu euskaldun eta burujabearen ezagutza eta bizipena (eta bilbotar izateari uztea, kar-kar!). Hots, bagarela nor, berezko nortasuna dugula eta guretik ekitea dagokigula ikastea. Dantzatzan den Deustu ez baita inoiz hilko!

On Miguel Unamunok zera idatzi zuen Recuerdos de niñez y de mocedad liburuan: “Udako oporretan, nire amonak Deustun, Bilbotik gertu, zuen landetxe batera joaten nintzen familiarekin (...) Eta igandetan Bilboko lagunak bat etortzen zen bazkaltzera (...) Zer nolako arrastoa utzi duten landako denboraldi haiek nire baitan, han, herrixkan (...) Udara zora-garriak Deustuko etxetxo hartan, landa-eremuetako sentimenduari arima ireki zidatenak!”.

Ba horixe, lagunok, gure herrixkan ikusiko dugu elkar, dantzari, frontoian edo bitan zatitutako eta “plaza” esaten dioten ezleku horretan. Uda ederra igaro dezazuela.

Ez adiorik, Deustu!

## ARDOAK HOBERANTZBAIT

*Doinua: Besarkadak eta labankadak*



**ENARE MUNIATEGI**

*Elorri bertso-eskolako kidea*

Lagun artean iluntze baten hizketan eta koplaka, gozatu daigun hau galtzearen beldurra agertu da ta. Elkar begira batak bestea edota besteak bata, nire kopa ardo zuriagaz bete nahi dut tantaz tanta

dastatuaz tantaz tanta. Lehenengo tanta heldu danean nire bi ezpainetara, neure kolkorako pentsatu dut “horren zorteduna zara”. Hazi egin gara, aldatu ere bai bide onetik beharbada, urtekez ardoak hoberantz



Bilboko kaleetan gero eta gehiago entzuten da

ZER DA?

B Bilbao

E S K A



EGIN ZAITEZ BABESLE!

Egin zaitez BERBAIZUKIDE eta babestu PREST! aldizkaria eta Deustualdeko euskalgintza. 20. urteurrenaren lamina jasoko duzue opari.

Informazio gehiago: [prestsharpide@gmail.com](mailto:prestsharpide@gmail.com)





# EGIN ZAITEZ BABESLE!

Babestu Prest! aldizkaria:

prestharpide@gmail.com



**Prest!**